



AZAROAREN 25A

INDARKERIA MATXISTEN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

2003tik aurrera, emakumeonganako indarkeriari buruzko datuak jasotzen hasi zirenetik, 115 emakume eta 11 haur erailak izan dira Euskal Herrian. Zenbaki onartezin honen atzean izenak eta izanak daude. Erauzitako bizi proiektuak. Bereziki memorian gorde nahi dugu, Sara Pina Ieregi, bere senarrak Castejonen erail zuena, aurtengo urtarriaren 8an.

Urte honetan ere bereziki aipatu nahiko genuke, jai giroan emandako erasoen gorakada eta bereziki sustantzia kimikorik gabeko ziztaden bidez egindakoak. Antolatutako emakumeonganako gorroto baten erakusle dira beldurra eta kontrola bilatzen duten eraso hauek. Hala ere, eraso bakoitzaren aurrean, hauek salatu dituen Mugimendu Feminista saretu bat atera da kalera. Isiltasunak normalizazioa dakarrelako, onarpena. Eta aspaldi esan genuen ez gaudela egoera hau gehiago onartzeko prest.

Azaroak 25 hau beraz, indarkeria matxistaren alderdi desberdinak identifikatzen jarraitzeko eguna izanen da. Bizitza libre, seguru eta subiranoen alde gaudelako.

Indarkeria matxistaren alderdi desberdinak identifikatzen jarraitzeko eguna da, gizartean sotilenak eta normalizatuenak direnekin hasita, hala nola ukituak; ahozko lizunkeriak; mezu eta adierazpen sexistak; janzkera, jendarte-sareen erabilera edo lagunartea kontrolatzea, eremu publikoa (eskolako patioak, jolastokiak, parkeak) askatasunez okupatzeko zailtasunak; edota emakume eta gizonen arteko berdintasuna zuzenean erasotzen dituzten administrazio-erabakiak. Bigarren estadio batean, sexu-erasoak eta eraso fisikoak egongo lirateke, eta, esparrurik bortitzenean, erailketak.

Gutariko bakoitzari dagokigu egoera hori aldatzea, eguneroko zereginetan hasiz, gure inguru hurbilenean jardunez. Eta gure kasuan, Etxauriko Udalak, konpromisoa hartzen du beharrezkoak diren baliabide tekniko, ekonomiko eta politikoak aktibatzeke, berdintasun-teknikariaren egonkortasuna eta kontratazioa bultzatuz, Berdintasuneko, jai parekideetako eta abarretako aurrekontu-partida indartuz.



Horregatik guztiagatik, **Etxauriko Udalak** honako hau erabaki du:

1. Etxauriko Udalak ez du murrizketarik egingo 2023rako berdintasun-aurrekontuetan, baizik eta berdintasunaren arloko aurrekontu-partida sendotzeko eta indartzeko konpromisoa hartzen du.
2. Etxauriko Udalak Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuari eskatzen die emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko aurrekontu-partidak gehitzeko, berdintasun-zuzendaritzak eta epaitegi espezializatuak etengabe indartzeko eta indarrean dagoen legeria berrikusteko konpromisoa hartzeko.
3. Etxauriko Udalak dei egiten du bermatzeko indarkeria matxistarekin zerikusia duten baliabide, zerbitzu eta prozedura guztiak, izan administratiboak edo judizialak, izan publikoak, doakoak eta ez-diskriminatzaileak
4. Etxauriko Udalak kontzientziazio, sentsibilizazio, prestakuntza eta erreparazio lanekin jarraituko du, indarkeria matxistak desagerrarazteko bidean aurrera egiteko.
5. Etxauriko Udalak berretsi egiten du borroka feministarekiko konpromisoa, indarkeriarik gabeko gizarte demokratikoa eraikitzeko bide eta tresna nagusi gisa.
6. Etxauriko Udalak azaroaren 25ean, 18:30etan, plazan egingo den elkarretaratzean parte hartzeko deia egiten du.
7. Etxauriko Udalak Mugimendu Feministak egun honen inguruan antolatuko dituen mobilizazio eta ekimenetan parte hartzeko deia egiten du.

Etxaurin, 2022ko azaroaren 25ean



Idoia Aritzala Etxarren
Etxauriko Udala